



## 4 UDALA

### Espainiar bandera udaletxean jartzeko agindua jaso da

2012ko maiatzaren 24an Carlos Urquijok Euskal Autonomia Erkidegoan espainiar gobernuko delegatua, Lasarte-Oriako Udalari espainiar bandera Udaletxeko balkoian eta baita eraikin bornean ere lehenatasuneko tokian jartzeko eskatu zion. Orduan, udalak jakitera eman duenez, helegitea jarri eta azken erabakia jaso berri du. Epaia arabera, bandera jarri behar du Lasarte-Oriako udalak bi hilabeteko epean.



## Atzeritarrentzat euskara ikastaroak

Hastapen mailako ikastaroa da eta dohainekoa da. Elkarbizitza sustatzeko asmoz ere hainbat ekintza kulturaletan parte hartzen da

Lasarte-Oriako udal Inmigratio sailak Banaiz Bagara eta Ttakunek sustatzen dituzten etorkinentzako euskara ikastaroak laguntzeko 11 hilabetetako kontratua egingo du. Era berean, taldearen saioak egiteko Udal euskaltegi gela erabilera ere ziurtatuko du Udalak.

Gure herrian hainbat dira euskara ikasi nahi duten herritarak eta etorkinak eta hainbat ere euskara ikasteko eskaintzen diren zerbitzuak.

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzu eta Inmigratio ataleko arduradunak, Petra Elser Banaiz Bagara-ko kudeatzaileak eta Naiara Mujika Ttakuneko ordezkariak asteartean Udalak eta bi elkarteek elkar lanean aurrera eramango duten egitasmoa azaldu zuten. Hain zuzen etorkinentzako euskara ikastaroak.

Gorka Lizarragak azaldu zuenez, "proiektu hau lehen euskara batzordeak lagutzen zuen, baina orain inmigratio sailak hartuko du beregain."

Horretarako, 11 hilabeteko kontratua egingo da Banaiz Bagarak zerbitzua eskaini ahal izateko.

### Taldea eta lekualdaketa

"Esperientzia badu Banaiz Bagarak horrelako lanetan," adierazi zuen Gizarte Zerbitzuetako buruak.



Naiara Mujika, Petra Elser eta Gorka Lizarragak egitasmoaren berri eman zuten Udal Euskaltegian.

Duela bi urte hasi zen Banaiz Bagara etorkinei zuzendutako euskara ikastaroak ematen. Lehenik AISA programako saioak eskaintzen ziren Danok Kide elkar-tearen egoitzan igandeetan eta gerora, Ttakun-en laguntzaz, eskaintza zabaltzea pentsatu zen eta iaz asteen zeharrek taldea osatu zen, ostegunetan biltzen dena. Saio hauek hasierako mailakoak eta doakoak dira.

"Oraingoz saioak Amaraun Ludotekan eskaintzen dira. Baina negura begira, lekualdaketa egingo da, udal euskaltegiara. Izen ematearen arabera, libre geratzen diren orduak ikusi eta euskaltegian egingo lirake saioak," adierazi zuen Lizarragak.

### Euskara ikasi eta elkarbizi

Petra Elser, Banaiz Bagara-ko kudeatzaileak, aipatu legez, "zerbitzua beste lurraldeetatik datozen pertsonentzat bada ere, Estatutik eta bertan jaio eta euskara ikasi ez dutenei irekitako saioak dira".

Elserren hitzetan, formula arin baten bidez, "ordu betez asteen eta era xume eta intuitiboan egunero erabiltzen den euskara ikasten da. Harremanetarako baliagarria dena." Udaran ere saioak daudela azpimarratu zuten, "beste motatako ekintzak egiten ditugu orduan".

Honetaz gain, elkarbizitza eta euskal kultura sustatzen ditu ikastaro honek.

Elkarbizitza dagokionez, "talde irekia da. 6 edo 8 pertso-

na daude. Jatorri eta adin desberdinetakoak eta euskara lotura izaki, bata bestea ezagutzeko da gure helburuetako bat."

"Gurasoak taldean egotea ere aberatsa da, duela gutxi etorri diren guraso erdaldunentzat, haien haurrek euskara ez dakitenez, oso lagungarria da haientzat euskarara hurbiltzea," azpimarratu zuen.

Honetaz gain, "ekintza kulturalak antolatzen ditugu, abesbatza, dantza ikastaroak... Eta Ttakunek edo herrian antolatzen diren ekintza eta jaialdietan ere parte hartzen dugu".

Era honetara, etorkinak gonbidatu nahi dituzte saio hauetara gerturatu eta probatzen. Saioak ostegunetan izaten dira arratsaldeko 15:30etik 16:30era, Amaraun Ludotekan.

## 5 KULTURA

### Alboka Abesbatzak 25 urte beteko ditu

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak 1988ko ekainaren 24ean eskaini zuen bere lehen kontzertua. Geroztik ia 25 urte igaro dira. Herriko abesbatzak bere zilarreko etzeiak ospatuko ditu bi hilabete hauetan eta horretarako hainbat ekitaldi prestatu ditu, hiru kontzertu eta erakusketa bat. Urteurrenari hasiera emateko bihar Okendo plazan, 19:00etatik aurrera, kontzertua eskainiko du. Honetan Zero Sete akordeo orkestra, Erketz EDT eta Erketzeko lagunak, Andoaingo Olagin txistulari taldea eta Amaia Agirre bertsolaria izango dira. Aurrez kalejira txiki bat egongo da.



**LASARTE-USURBIL**  
**INSTITUTUA**

**bihe+**  
Batxilerrerako  
izen-ematea  
maiatzaren 2tik 14ra

Zure  
aukerak





• D.B.H.  
• BATXILERRA

www.ieslasarte-usurbilbhi.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

Neure kabuz



**Unai Muñoa**  
Bidea

Santiago bidearen parekoa da bizitza; Norbere konpainian, barrura begiratzen duen bidaia, zer gerta, zer ikusi eta zer ikasi zain. Pauso bakoitzak misterio berri bat ekarri dezakeelakoan, beldurraren eta irrikaren arteko nahasketa tentagarria.

Bizitza magiaz beteriko abentura gazi-goza izaki, badirudi inteligen- tea ere badela, eta bakoitzari dagoz- kigun ikasgaiak jartzen dizkigula bidean. Bideo jokoan antzera, pantaila bera mila bider errepikatzeraino, herensugea menderatu ezean. Eta behin mendea hartuta? hurrengoa zain, eta hurrengoa, eta hurrengoa...

Maitasuna bizitzaren eta zorio- naren mortortzat onartuta, eta bidean joan-etorrian dabiltzan beste hamai- ka erromes gurutzatuko zaizkigunez, hobe dugu bestea ulertu... lehiakide ordez bide-lagun bihurtu, aerio beharrea konplize, gure buruaren ispilu eta ez gure epaiaren zain dagoen akusatu, edo alderantziz... Besteek osatu egiten gaituzte, eta ez, sinestaz nahi diguten gisan, arris- kuan jarri. NI-tik GU-ra eta GU-tik NI-ra sortzen den oreka askea behar luke. Bakoitzak gure bide eta proze- sio propioa daramagu, baina etapaz etapa besteengana inguratzen gara, babes eta konplizitate bila. Maitasun premiak batzen gaitu.

Elkartzen garen legez banatzen gara, ordea. Baliteke aldi batez batera bidaiatzea, baina bakoitzak norabide bat dugunez, baliteke denborarekin bide berberdin bat hartzea ere, edo ez... Nork daki... Dakiguna da, gure burua izango dugula bidaia-kide ziur bakarra.

Jabeak eskainitako makilari hoz- katzen dion zakurtxo bezalakoak gara. Geuk hozkatzen ditugun menpekotasunen eta beldurren makilek astintzen gaituzte ezker- eskuin, jabeak nahi bezala. Ez gara ohartzaren ordea, nahi dugunean makiltxo askatu besterik ez du- gula, ezerk ez gaituela lotzen, aukera- tu genezakeela bidea, alegia.

Santiago bidea bezalakoak da bizitza; non hasiko zaren badakizu, baina ez norekin, nora, eta noiz irit- si-ko zaren. Onena gertatzeko dago!

Zorion agurrak



**Aiora**

Zorionak polita zure 6 garren urtebetetzean, txokolatezko muxuak Oier, aitaxo eta ama- txoren partetik



**Iker eta Nora**

Zorionak bikote! Oso ondo pasa eta muxu handi bat aitaxo-amaxo eta familiaren parte- tik.



**Ciro**

Zorionak zure lagun- partetik!!! Zuk badaki- zu nor garen!!!!



**Igor**

Zorionak zure bostga- rren urtebetetzean eraso eta familien partetik. Ondo pasa!



**Aimar**

Zorionak txapeldun!!! Sei muxu handi familia guztiaren partetik



**Koan**

Zorionak zure familia- ren partez mila muxu zure egunean!!



**Xune**

Zorionak prexioxi! Mila muxu pottolo zure lehenengo urte- betetzean, familia oso- aren partetik.



**Alberto eta Gorka**

Zorionak zuei! Zorionak beti...hori urtea zuena! Primeran pasako dugu.



**Julen**

Zorionak! Zazpi muxu handi familiaren parte- tik, bereziki aita-ama eta Endikaren partetik.



**Oier**

Zorionak polita! Zure familia eta Dunboren partez! Txoko marru- bizko muxuak.

Azoka txikia

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Etxebizitza alokatzen da Sasoea auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eska- tzen da. Telefonoa: 649526766
- Juan XXIII plazan garaje marra bat alokatzen da. 55 euro. Harremanetarako, 616 816 814.
- Bi gela alokatzen ditut Sasoea Auzoan. 270 euro dena barne. Harremanetarako zenbakia, 650 225 553.
- Juan XXIII plazan garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako, 648 614 769
- Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako, 648 614 769
- Pisukidea bilatzen dut, pisua konpartitzeko. Lasarte-Oriako zentroan dago, handia eta argitsua da. Interesa duenak, 647 884 278.

**Salerosketak**

- Sofa bat saltzen da, 2,75 luze eta 92 zm zabal. Oso egoera onean dago. Harremaneta- rako zenbakia 680 54 78 19 goizean 9:00eta- tik 10:00etara deitu.

rako zenbakia 680 54 78 19 goizean 9:00eta- tik 10:00etara deitu.

**Lan-eskariak**

- Haurrak edota pertsona adinduek zaintzen lan egingo nuke. Orduka ere bai. 696 27 96 25
- Esperientziadun emakumeak lan egingo luke agureak zein umeak zaintzen, interna edo externa moduan, orduka... 638372872
- Aroztegiari, eraikitzen edo baserrietan lan egiteko prest nago. Paperak ditut. Harremanetarako 656 333 322 edo 943 507 952 zenba- kira deitu.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsona edadetuak zaintzeko edo kamarera bezala lan egiteko. Harremanetarako, 696 279 628.
- Gizona eskaintzen da baserrian, sukaldean edo kamarero bezala lan egiteko. Harremanetarako, 699 877 014.
- Heziketa Bereziko diplomatu haurrak zain- tze-ko prest. Goiz zein arratsalde. Harremanetarako, Amaia 647 142 701.
- Emakume arduratsua eskaintzen da perso- na adinduek edo haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka, zein interna moduan. Harremanetarako, 636 467 722.
- Pertsona bat eskeintzen da adineko perso- nak eta haurrak zaintzeko. 638 372 872 / 943 507 952
- Emakumea eskaintzen da goizetan zortzi ordu lan egiteko. Sukaldean laguntzaile modu- ra, garbitzaile edo pertsona adinduek zaintze- ko prest. Harremanetarako, 633 750 443.

Heriotzak Jaiotzak

**Jaiotzak**

- Lucia Adriana Dumitrescu, apirilaren 22an.

**Heriotzak**

- Prontxio Irazusta Agote, maiatzaren 8an, 84 urte zituela.
- Martina Fernandez Barbarin, maiatzaren 2an, 93 urte zituela.
- Maria Jesus Echeverria Aizpurua, maiatzaren 2an, 77 urte zituela.
- Bittori Toledo Zinkunegi, maiatzaren 2an, 93 urte zituela.

Farmazia Goardiak

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

<b>Ostirala, 10</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Larunbata, 11</b> Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Igandea, 12</b> Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Astelehena, 13</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Astearte, 14</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Asteazkena, 15</b> Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Osteguna, 16</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8  
Hernani, Tel.: 943 336 022

**Diruz laguntzen duten erakundeak**

**Babeslea**



**Lasarte-Oriako Udala**

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Laguntzailea**



**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

**txintxarri**

**Erredakzioa:**

Nerea Ezzagirre, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

**Publizitatea eta administrazioa:**

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

**Laguntzaileak:**

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

**Informatioa:**

Xabier Amadoz

# EAJ Okendo eta Michelingo garajeen egoeraz kezkatua

Okendoko proiektuak hutsune eta gabeziak omen ditu. Ogasun batzordeak, EAJ-k zuzendua, bere esku dagoen guztia egin omen du

**Duela urte eta erdi Lasarte-Oriako garajeen eskaera jakiteko izena ematea egin zuen Udalak eta geroztik, herritarrek eskainitako garajeen esleipenari buruz galdetzen dute. Lasarte-Oriako EAJ-k asteartean herritarren galderei erantzun eta Okendoko garajeen buruz duen bere kezka azaldu du, Michelingo garajeen arazoak errepikatzea.**



Okendoko garajeak ez dira iraindik Udalarenak eta prozesua atzeratzen ari da.

Lasarte-Oriako EAJ-k Okendo eta Michelingo garajeen egungo egoera zein den azaldu zuen asteartean eskainitako prentsaurrekoan.

Juan Mari Alkorta, Estitxu Alkorta eta Boris Nogalesek Okendoko garajeen buruzko haien kezka agertu zuten, jasotze prozesuan izaten ari den atzerapen handia dela eta. "Badirudi proiektuak, lehengoko udal gobernuaren garaian egin zena, hutsune eta gabezi nabarmenak dituela; erabilpen publikorako eman aurretik, halaber, konpondu beharreko hutsuneak, hain zuzen ere."

Prentsaurrekoan garaje hauen esleipenaren ardura Ogasun eta Ondare Sailari dagokiola jakitera eman zuten, baina argi utzi nahi izan zen sail honi dagokion

lana egin dagoela, "garajeen esleipenari dagozkion arauak idaztea eta onartzea". Eta Hirigintza sailak lan hau jaso bezain pronto, garajeen esleipena egin ahal izateko deialdi publikoa luzatuko dela aurreratu zuten.

"Ez dugu nahi Michelingo garajeen kudeaketarekin dauzkagun arazoak Okendokoetan errepikatzea" adierazi zuen Estitxuk. EAJ-ko bozemaileak azaldu zuenez, Michelingo gunean, garajekopuruaren erdia besterik ezin dituzte esleitu.

Gainera, duela gutxi jasotako epaiaren arabera, garaje hoiek egindako enpresa ez da bertan emandako ur-sartzeek eragindako kalteen erantzule eta kalte horien erantzukizuna, "momentuz, Udalarena da, nahiz eta proiektu egileari kalte hauen ardura leporatze aukera ez baztertu".

## Eskaerak

Honela, bi proiektu hauetan kudeaketa txarra egin dela salatu zuten, "Okendon eta Michelingoan egin beharreko lanengatik aurrekusi gabeko gastu horri, garajeen esleipenak ezin egiteagatik jasoko ez dugun diru-sarrera batu behar zaio".

Horregatik Udal gobernuari hiru eskaera egin zizkioten. Batetik egin behar duen kudeaketa bizkortzea, Okendoko garajeak ahal den azkarren jasotzeko.

Honetaz gain, Udalak Michelingo garajeetan egun ematen diren ur-sartzeak konpontzeko lanak lehen bait lehen abian jartzea ere eskatu dute.

Era berean, Okendo eta Michelingo garaje-erakuntzetan izandako galera, kalte eta atzerapenaren ardura dagokien erajitza nahi dute, Udalak berak gastu hauek orainoz bere gain hartu arren.

## BERTSOAK

**"Hango eta hemengo" bertso saioa "Hitzetik hortzeran" gaur**

Larunbatean kultur-etxean egon ez zirenek, Ttakun eta Earra! bertso eskolak antolatutako "Hango eta hemengo" bertso saio-ko hainbat pasarte ETB1-ko "Hitzetik hortzeran" saioan ikusteko aukera izango dute gaur, 21:00etatik aurrera.

## MUSIKA TOPAKETAK

**Fabordon Hirukotea**

Fabordon hirukotea entzuteko aukera izango da, berriro ere, Lasarte-Orian. Oraingoan, Ama Brigitarren komentuko kaperan izango dira, gaur, maiatzaren 10a, 19:30etik aurrera, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen VIII. Topaketen barruan.

Carlos Rosat flautista, Tomas Ruti fagot jolea eta Imanol Elizasu piano joleak XVIII eta XIX. Mendeko Europa erdialdeko musikagile nabarmenak joko dituzte gaurkoan. Donizetti, Mozart eta Beethoven doinuak entzuteaz gain, Damare-ek flautinarentzat idatzitako polka esanguratsuenak, "Le Bouquet de roses" lanaz gotzatzeko aukera izango dute Brigitarren komentura hurbiltzen diren herritarrek.

## BIYAK BAT

**Sos del Rey Catolico-ra irteera**

Biyak Bat elkarteok hilabete honetan Sos de Rey Catolico-ra irteera antolatu du. Bertan, San Esteban eliza eta Sada-ko jauregia bisitatuko dituzte. Txangoa maiatzaren 23an izango da eta autobusa goizeko 8:30ean aterako da elkarte aurreko geltokitik.

Irteerak 35 euro balio ditu elkarteok bazkideentzat eta 40 bazkide ez direnentzat. Izena ematea astelehenean hasiko da 10:30etik 12:30era.

## ISLADA EZKUTATUAK

**Testigantzen beharra**

Maiatzaren 22an 75 urte beteko dira Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela. Islada Ezkutatuak taldea jakinarenean ganean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza. "Beldur gara, guk ezagutzen ez dugun herritar bat baino gehiago izan daitekeela esperientzia tamalgarri hura bizi izan zuena". Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten, "ezagutza izan dezagun eta zerrenda bat osatze aldera". Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute. Taldeak zehaztu duenez, "Lasarte-Orian denboraldi bat bizitakoak eta eskualdekoak ere jasoko genituzke".

# Udaletxe berriak dituen eraikuntza arazoak dira oztopo

EAJ-k egindako adierazpenak erantzuteko udal gobernuak oharra zabaldu du. Honetan arazoak gainditzeko alderdien elkarlana azpimarratzen da.

"Udalaren ikuspuntutik, aspalditik jakina den moduan, aurreko agintaldiko gobernuak utzitako Udaletxe berriko eraikina buruhauste pilaketa bat izan da. Beraz, erabat ados gaude, EAJ alderdiaren adierazpenekin eta bat egiten dugu hutsune eta gabeziak betetero eraikina dela esatean".

Talde hau gobernura heldu zenetik bi urte luze pasa dira eta "oztopoak ugari izan dira egunerokotasunean bere proiektuak aurrera eramanez ahal izateko, eta garbi dago, hauen artean puntu gorriak handienetako bat Udaletxe berria izan dela." Bere disei-

nutik hasi eta exekuziora arte, akats ugari jaso zituen herentzian Udal Gobernuak eraikin berri honekin batera, eta hortik, hasierako proiektuan aurrekusi ez zeuden lan eta ondorioz gastuak guztira 632.416 eurotakoak izan direla azaltzen du: 520.949 euro gastuetan eta 111.467 euro BEZaren igoerari zegokion; proiektuaren hasierako aurrekontuaren %15 inguru.

Eta gainera, Udalak eraikina jasotzeko dituen arazoak daude. "Noski, eraikina oraindik ez baita Udalarena eta eraikuntza arazoak konpontzeko eskatzen baitabil, horrek dakarren atzerapen guztiarekin eta bai funtzioen lekualdaketa-rako nahiz garajeen esleipenak gauzatzeko arazoekin".

Udal gobernuak aipatzen duenez, beste hamaika kontu

txikiren artean, kontutan hartzekoak dira, "batetik suteen legedia ez zuela betetzen eta su sektoreak behar den moduan desberdintzeko lanetan ari direla, honek duen larritasunarekin, eta bestetik, azkeneko ur-sartzeekin izan dugun arazoak".

Oharren adierazten denez, horrek guztiak aurretik aurrekusi gabeko gastuak ekarri dizkio Udalari eta argi utzi dute, ez duela Michelingo garajeen kasuan gertaturikoa errepikatzerik nahi. "Gastu hauek, aurretik esan bezala, Udalaren egitasmo eta proiektuak zalanztan jartzen baitituzte, eta modu horretan baldintzaturik baitago".

EAJ-ren eskaerei dagokionez, Udal gobernuaren esku-ra dauden baliabide guztiak jartzen direla arazo hauei



Udaletxe oraindik ez dago udalaren esku eta horrek arazoak sortzen ditu.

aurre egiteko eta horretan ere ahalegina egiten ari dela aipatzen da oharrean.

Azkenik, Udal Gobernuak "kanpotik datozen arazoak arazo, Okendoko garaje eta eraikin berriaren lan hau, beste askoren moduan, departamentu arteko dela; eta kasu honetan hiru aldeko lanketa izan dela Hirigintza, Zerbitzuak eta Ogasun departamen-

tuarena," azaltzen du. Eta "Ogasunak, bere lanak gaur egun eginak izatea oso ona dela iritzien dio, baina lanak itsasontzi osoak egiten dituela eta aranean ari diren guztiak Udalaren parte direla garbi utzi nahi du, batasun hori ez dadin hautsi eta herritarrek departamentuen arteko bereizketak egin ez dituzten" gehiatzen dute.



# Alboka, 25 urte kantuan

- ▮ Abesbatzak zilarrezko urteurrena ospatuko du datozen hilabeteotan hainbat ekitaldirekin
- ▮ Larunbatean, 19:00etan, kontzertua eskainiko du Okendon beste talde batzuekin batera

Alboka abesbatzak, ekainaren 24an, 25 urte beteko dituela eta, astearte arratsaldean aurkeztu zuten Manuel Leuonan urteurrena ospatzeko abesbatzak, Udaleko kultura sailarekin batera, antolatu duen egitaraua. Albokarentzat berezia da 2013a, ospakizun urtea, eta bere "poza" herritar guztiengana zein "ibilbide luze honetan lagun izan ditugun taldeengana" zabaldu nahi izan dute. Horrela, besteak beste, Andoaingo txistulariak, Erketz, Zero Sette, Xumela eta Amaia Agirre bertolariarekin batera Okendo plazan, eskainiko duen kontzertuarekin irekiko da, larunbat honetan bertan, ospakizun ekitaldien zerranda luzea.

Jon ALTUNA IZA

S an Pedro parrokian eskaini zuen 1988. urteko ekainaren 24an Alboka Abesbatzak bere lehen kontzertua. Gero, 25 urtean, milaka kantu abestu, hainbat kontzertu eskaini, zenbait bidai burutu eta hamaika lagun egin ditu abesbatzak hemen inguruan zein kanpoan.

Guztia oroitu dute ondorengo hilabeteotako ospakizunetan. Hiru kontzertu, erakusketa, eta afaria dira oinarria eta, bestalde, abesbatzaren irudia zein web orrialdea berri-tuko dituzte. 25. urteurrenoko ospakizun ekitaldien aurkezpenen izan ziren, gaur egun zuzendari diren Kristina Perez Abreu eta Montse Latorre, zuzendaritzako kide Nerea Eizagirre, Lasarte-Oriako Udaleko Boris Nogales eta Xabier Goitiarekin batera.

Ekainaren 22rako gorde dute ospakizun handiena. Arratsaldeko 20:00etan kontzertua emango dute San Pedro Elizan kide ohiekin batera eta, ondoren, afaltzeko elkartzeko dira Albokan urte hauetan ziren direnak.

Daniel Adrianek proposatu zuen Alboka Abesbatza mistoa sortzeko egitasmoa, 1987an, Tedoso antzokian, ehun lagun baino gehiagoren aurrean. Bere asmoa, ordura arteko gizonezkoen abesbatza herri guztiari irekitzea zen. Ordutik hainbat herritarrek kantatu du abesbatzan; gero, 1993. urtean Alboka-Txiki sortu zen; 1995ean, Zandategi gazte abesbatza; 1997. urtean, Kristina Perez Abreuk ordezkatu zuen Daniel Adrian zuzendaritzan eta 2008 urteaz geroztik, Montse Latorrek laguntzen dio zeregin horretan.

## Irudi berria

Astearteko aurkezpenean Alboka abesbatzaren irudi berria erakutsi zuten. Batetik, duela 25 urte Felix Rincón-ek egin zuen logotipoa eguneratu dute eta 25. urteurrenoko irudi berezia diseinatu ere bai, Nerea

Eizagirrek azaldu zuenez. Bi alboekin abeslariaren aurpegi irudikatzen duen hasierako logotipoan oinarritu dira, baina formak borobildu dituzte eta abesbatzaren irekitasuna irudikatze, erdiko ahoaren irribarra handitu diote. Bestalde, logotipo beltz horri granate koloreko 2 eta 5 zenbakiak gehitu 25. urteurrenoko irudia prestatu dute. Beltza eta granatea dira hain justu, abesbatzak jantziaren erabiltzen dituen koloreak, Nerea Eizagirrek nabarmendu zuenez.

Bestetik Albokaren web orrialdea ere berritzen ari direla jakinarazi zuen Eizagirrek: "Webu eguneratu eta irudi erakargarriago eman nahi diogu. Eta sare sozialetan ere lekutxoaz izango du Alboka Abesbatzak".

## Oroigarria

Honetaz gain, Alboka abesbatzak DVD bat prestatuko du ospakizuneko oroigarri gisa. Dokumentalean jasoko dira abesbatzaren historia, bidaiak eta esperientziak. Urte hauetan koruko partaide izan direnei elkarrizketak egin zaizkie.

Beraz, kideen istorioak eta bizipenak jasoko dira DVDan eta horiekin batera, txertatu dute, abesbatzak laster grabatuko dituen hiruzpalau abesti.



Montse Latorre, Xabier Goitia, Nerea Eizagirre, Boris Nogales eta Kristina Perez Abreu aurkezpenean, 25 urteurrenoko irudiarekin.

## Ospakizunak

Montse Latorrek eman zuen ospakizun ekitaldien berri. Kantuz ospatuko ditu Lasarte-Oriako abesbatzak 25 urteak eta lauzpabost ekitaldi aipatu zituen zuzendariak: Larunbat honetan, maiatzaren 11n, arratsaldeko 19:00etan, kontzertua eskainiko du herriko abesbatzak Okendon. Aurretik, kalejira egingo dute 18:30ean txistulariekin batera.

Albokarekin batera izango dira oholztan Erketz EDT eta Erketzeko lagunak taldeetako dantzariak, Zero Sette akordeoi orkestra, Andoaingo Olagain Txistulari taldea, Xumela korua eta Amaia Agirre bertolaria.

Eguraldi txarra egiten badu ikuskizuna Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko dute eta horrela bada, kultur etxeko leihatilan sarrerak eskuratu beharko dira.

Bestalde, ekainaren 1ean Ama Brigitarren komentuan, 20:00etatik aurrera, kontzertua

eskainiko du Kataluniako Sant Esteve abesbatzak Albokak lagunduta.

Gainera, ekainaren 7tik ekainaren 21era, "25. Urteurrena" izena duen argazki erakusketa gongo da ikusgai Manuel Lekuona kultur-etxean eta Jalgi Kafe-antzokian. Denetarik jarriko da erakusketan: Kontzertu, bidaiak, abesbatzan parte hartu duten abeslari eta abarren argazkiak, kontzertutako programak... "Argazki bidez kontzertu dugu Albokaren historia" azaldu zuten aurkezpenean.

## Kontzertua San Pedron

Eta azkenik, ekainaren 22an, larunbatean, 20:00etan, Alboka Abesbatzak 1988ko ekainaren 24an eskainitako lehen kontzertua ekarriko du gogora. Horregatik erabaki dute, duela 25 urte bezala, emanaldia San Pedro elizan egitela. Kontzertu honetan herriko abesbatzarekin batera, SuBerri akordeoi orkestra, Xabi Lasa gitarrara

jolea, Javi Busto musikagile hondarribitarra eta Alba Carretero biolin-joleak hartuko dute parte.

Bi berezitasun izango ditu kontzertu honek: batetik, Javi Bustok egun honetarako bereziki idatzi duen, "Sicut Cervus" lana aurkeztuko dute. Eta bestetik, aurretik Alboka, Zandategi eta Alboka Txikin ibilitakoek abesteko aukera izango dutela. Abesbatza hauen errepertorioan ohikoak diren "Kantuz" eta "Ilunabarra" abestiak eskainiko dituzte San Pedro elizako kontzertuan. Kristina Perez Abreuk aipatu zuenez, "oroitzapen eta aitortza kontzertua" izango da eta "gure artean ez dauden abeslariak ere gogoratuko ditugu".

## Entsegu eta afaria

Kontzertuan eskainiko diren bi abesti hauek prestatzeko bi entsegu egingo direla jakitera eman zuten, Zumaburuko Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokaletan, ekainaren 7an, ostiralean eta ekainaren 11n, asteartean, biak arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Gainera, ekainaren 22an, kontzertuaren ondoren, bazkide, abeslari ohi eta abeslariak afaltzeko elkartzeko dira Goiegi jatetxean. Aurrez izena eman behar da 678 382 663 telefono zenbakian ekainaren 12a baino lehen.

Bestalde, Kristina Abreuk jakinarazi zuenez, uztailean 6an Kantabriako Comillas-era joango dira abestera. Bertako Brumas Norteñas taldea abenduan egon zen Lasarte-Orian eta orain bisita itzuliko diote Albokakoek. Bestalde, datorren ikasturtean Kalaluniara joateko asmoa dutela aurreratu zuten Albokako zuzendariak.

## Sorrera eta ibilbidea

Alboka abesbatzaren hazia 1977. urtean erein zen. Orduan, Joxe Mari Telleriak, Alboka ahots grabeen abesbatza sortu zuen, gizon talde bat batuz, gehienak San Pedro parrokiako koruko kide ohiak. Hor zen Daniel Adrian eta, Felipe Lizarragak gizonen abesbatzaren zuzendaritza uztean, abesbatza mistoa sortzeko urratsak ematen hasi zen bera.

1987ko azaroaren 3an aurkeztu ziren herritarrei proiektua, gaur egun kultur etxea bihurtu den Tedoso zinean. Ekitaldi jendetsua izan zen, adin eta egoe-

ra sozial ezberdineko 100 pertsona baino gehiago bildu ziren bertan. Hasiera hasieratik hainbat bazkideren laguntza izan du abesbatzak eta estreineko kontzertua 1988ko ekainaren 24an eman zuen Albokak San Pedro Parrokian.

Alboka abesbatzak ibilbide luzea egin du. Aipagarriak dira, Zero Sette akordeoi orkestra eta Erketz dantza taldearekin batera 1993an prestatutako Pablo Sorozabalen "Eusko Irudiak" lana; 2008an, Tirri-Tarra fanfarea eta Soto Voce orkestrarekin eskainitako Argi-Beltza ikuski-

zuna edo Iñigo Peña lasarteoriatarren "Bihotz txiki bat" lana.

Kanpora ere hainbat bidaiak egin ditu Albokak. Batzuk aipatzearen, 2010ean Portugalen egon ziren, 2007an Norvegian, 2004an Frantziako Monpelierren, 1995ean Italian eta 1994an Polonian.

Nabarmentzekoa da Alboka Abesbatzak harrobia ere zaindu duela. 1993an sortu zuen Alboka Txiki taldea bizi bizirik da oraindik eta, bestalde, neska gaztetxoaren Zandategi abesbatzak, 1995etik 2000ra, bien arteko zubi lana bete zuen.

# Udalak espainiar bandera jarri behar du

Epaiaren arabera Udalak bandera balkoian jartzeko bi hilabeteko epea du

**2012ko maiatzaren 24an Carlos Urquijo espainiar gobernuko delegatua Euskal Autonomia Erkidegoan, Lasarte-Oriako Udalarari espainiar bandera Udaletxeko balkoian eta baita eraikin bornean ere lehentasunezko tokian jartzeko eskatu zion. Udalak helegitea jarri eta azken erabakia jaso berri du. Epaiak dio bandera jarri behar dela bi hilabeteko epea emanaz. Honen inguruko informazioa zabaldu du udalak berak.**

2012ko maiatzaren 24an Carlos Urquijo espainiar gobernuko delegatua Euskal Autonomia Erkidegoan, Lasarte-Oriako Udalarari espainiar bandera Udaletxeko balkoian eta baita eraikin bornean ere lehentasunezko toki batean jartzeko eskatu zion Udaletxetik adierazi dutenez.

Urquijok 39/1981 legea betetzen ez zelako salatu zituen hainbat udalari eta hauek jarritako helegiteen aurrean, epaia jasotzen ari dira Udaletxeak.

Lasarte-Oriako Udalak 2012ko abenduan, "agindutakoa inposaketa bat zela iritzita eta Udalerriko sentsibilitateak kontutan hartzen ez zirela ikusita", eskaera hau errekurritu eta ez zuen bandera jarri Udaletxeko balkoian.

## Epaiak


Donostiako administrazioarako epaitegiak behin betiko sententzia irrimo ezarri zuen martxoan eta Udalarari gobernuko delegatuaren eskaria

bete behar duela eta berriz ere helegitea jartzeko aukerarik ez duela jakinarazi zion apirilaren 26an. "Guzti hau ikusita, Udalak herritarrei honen berri ematea erabaki du, bi hilabeteko epea baitugu Espainiako bandera Udaletxeko balkoian jartzeko multa eta inhabilitazioen mehatxupean".

## 1981eko Banderaren legea

Banderaren legea 39/1981 hain zuzen, 1981eko urriaren 28an Juan Carlos I.a erregeak eta Leopoldo Calvo Sotelo Gobernuko presidentek sinatu zuten. Bertan, Espainiako banderaren erabilerarako hainbat arau zehaztu zituzten.

Honen baitan hirugarren artikuluko lehenengo puntuak horrela dio: "Espainiako banderak airean ibili beharko du



Orain arte ez da banderarik egon udaletxeko balkoian.

kanpoaldean, eta lehentasunezko lekua hartu beharko du estatuko administrazio zentral, instituzional, autonomiko edo herri-administrazioetako erakinetan". Era berean, laugarren eta bosgarren artikuluek, autonomia erkidegoetan, edo udaletxe nahiz foru aldundie-

tan, Espainiako bandera erabili behar dela diote.

Aipatzekoa da 2007ko uztailearen 24an Auzitegi Gorenak epaia eman zuela lege honen inguruan eta Espainiako banderak "egunero eta iraunkortasunez airean ibili behar" duela zehaztu zuen.

## Gidabaimena ere euskaraz



Andoainean egin zuten aurkezpena udal eta auto eskoletako ordezkariak.

Lasarte-Orian hiru dira egitasmo honetan parte hartzen duten auto eskolak eta horrela izanda, hiru sari banatuko dira euskaraz gidabaimenaren atal teorikoa ateratzen duten herritarren artean. Zozketan parte hartuko dute eskualdean erroldatuta eta teorikoa urtea amaitu arte gainditzen duten herritarrek.

2010ean ekin zioten Buruntzaldeako udalek gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoa sustatzeari eta aurtengo agerraldia egin zuten ekimena ezagutzera emateko.

Andoingo Ainara Rodriguez zinegotziak eta Boris Nogales Lasarte-Oriako euskara zinegotziak aurkeztu zuten ekimena. "Azken urteetako emaitzak ikusita geroz eta gehiago dira teorikoa eus-

karaz ateratzea animatzen diren herritarrek" hau dela eta, azken urteetan bezala herritar hauen artean sariak zozketatuko dira.

## Matrikula doan

Saria gehienez 400 eurokoa izango da eta guztira 11 banatuko dira.

"Orain arte auto eskola bakoitzeko sari bana zozketatzen zen baina aurtengo zozketa ez da horrela egingo, auto eskola kopuruaren araberako izango da herrikoa" ondorioz Lasarte-Orian euskaraz teorikoa egiten duten ikasle guztien artean hiru sari banatuko dira.

Herrian gaur egun, Izarra, Lasarte eta Mugika auto eskolak dira euskarazko eskaintza hau dutenak.

Nafarroako Gobernuaren debekuaurrean emaguzue zuen baimena

**Bazkidetu!**

euskalerrirratia.com

00 34 948 17 01 51

#ZuenBaimenarekin

## PILOTA.-

## Herriarteko txapelketan lehenengo Astigarraga arerio

Herriarteko Txapelketaren 46. edizioa asteburu honetan hasiko da. Eskuko txapelketan 22 herri izango dira aurten finalerako lehian eta Lasarte-Oria ere bertan izango da.

Lasarte-Oriako taldean kadete mailan Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasolak osatuko dute bikotea. "Gazteak dira, baina bere maila erakutsiko dutela uste dugu," Joxe Felix Solano taldeko arduradunak.

Jubenil mailan, Aritz Solano, Ander Rekondo eta Xabi Prieto izango dira. "Axier Arteaga lesionatua dago, baina besteek ere lan ona egitea espero dugu".

Eta Aitor Aranburu, Jon Pello Artetxe, Aritz Urkia, Gorka Mendizabal, Xabi Arteaga eta Mikel Elolak osatu dezakete senior mailako bikotea.



Iaz Lasarte-Oriak ez zuen zortirik izan eta Donostiaren aurka erori zen lehen kanporaketan.

Lehen partida igandean 17:00etan kanpoan jokatuko du Astigarragaren aurka. Joaneko partida maiatzaren 19an izango da.

### Kanporaketa zaila

Iaz final erdietara iritsi zen Donostia izan zuten aurrez aurre lehen partidari eta ez zuten zortirik, ezta aukera askorik ere izan lasarteoriatarrek. Eta oraingoan ere zail izango dutela aitortu digu taldeko arduradunak.

Kanporaketan aurrera egingero Elgoibarren aurka izango dute norgehiagoka.

### GRAVN-en Elola bigarren

Bestalde, Mikel Elolak GRAVN txapelketan bikotekako trinketeko finalean jokatu eta Bizkaiaren aurka, 40 eta 20 galdu zuen.

## FUTBOLA.-

## Ostadar eta Texas koparen bila

Aste honetan final zortzirenak jokatuko dituzte

**Texas-Lasartearra elkarteko I. Erregional taldea eta Ostadar SKT-ko jubencil eta kadeteak Kopako azken fasea txartela eskuratu dute. Ostadarreko alebinak eta Texas-Lasartearrako kadetea bidean geratu dira.**

### Nerea EIZAGIRRE

Hainbat dira Kopa txapelketa jokatzeko ari diren herriko taldeak. Lehengo asteburuan, txapelketa honetako erregional, jubencil, kadete eta alebin mailako lehen faseari amaiera eman zitzaion eta Texas-Lasartearra eta Ostadarreko hiru taldek aurrera egin dute. Asteburu honetan, final zortzirenak jokatu dituzte partida bakarrera.

### Sailkatuak

Texas-Lasartearra taldeko erregionalak bere multzoko bigarren postuan amaitu zuen azken partidari Zarautzi 3-2 irabazi ondoren. Koldo Ageitosen mutilak postu horrekin



Texas-Lasartearra-ko erregionalak ederki saiatu ziren igandean bigarren postua mantentzeko.

txartela lortu eta berriro ere, kopa txapelketako finalera iritsi daitezke.

Ostadar SKT-ko jubencilak ere sailkapena lortu zuten. Nahiz eta 4-1 galdu Intxurren aurka eta laugarren izan bere multzoan, hurrengo fase-rako txartela lortu dute, maila honetan multzo bakoitzeko lehen laurak sailkatzen baitira.

Eta Ostadarreko kadeteak ere finalerako lehian sartu dira, bere multzoko lehenengo izan eta gero. Azken partidari, Urnietari 3-2 irabazi zioten Michelinekin ikusi ahal izan zen Buruntzaldeako derbia.

### Kopatik kanpo

Bestalde, herriko bi talde

azken fase honetatik kanporatu dira, Texas-Lasartearra taldeko kadeteak eta Ostadarreko alebinak.

Texas-Lasartearrako kadeteak bere multzoko laugarren postuan amaitu dute fasea eta Ostadarreko alebinak, berriz, zortzigarren izan dira. Beraz, denbaldia amaitu dute.

Honetaz gain, Ostadar SKT-ko emakumeek lehengo asteburuan eman zioten hasiera azken faseari eta Javi Solchagaren neskek ez zuten egun ona izan.

Michelingo zelaian jokatu zen joaneko partidari Urolaren aurka 1-6 galdu zuten. Beraz, joaneko partidari lan zaila izango dute neskek markagailuari buelta emateko.

## KIROL AGENDA.-

### FUTBOLA

Larunbata 11  
**Michelin, 10:30ean**  
 Ostadar-Hernani I. Infantila, kopa  
**Michelin, 12:00etan**  
 Ostadar-Hernani  
 I. Kadetea, kopa 1/8 kanporaketa  
**Michelin, 15:30ean**  
 Texas Lasartearra  
 I. Erregionala, kopa 1/8 kanporaketa  
**Ibarra, 16:00etan**  
 Aretxabaleta-Ostadar  
 I. Erregionala, igoera  
**Mastegi, Lesaka, 16:15ean**  
 Beti Gazte-Ostadar  
 Erregional Oharrezko maila  
**Azkoagain, Oiñti, 16:30ean**  
 Aloña Mendi-Ostadar  
 Jubencilen Oharrezko maila  
**Unbe, Eibar, 18:00etan**  
 Eibartarrak-Ostadar  
 I. Jubencil, kopa 1/8 kanporaketa

Igandea 12  
**Michelin, 10:30ean**  
 Ostadar-Euskalduna  
 Infantil Txiki, kopa  
**Argixao, Zumarraga, 18:00etan**  
 Urola-Ostadar  
 Emakumezkoen Liga, kopa

### ARETO-FUTBOLA

Asteazkena 15  
**Usabal, Tolosa, 20:00etan**  
 Laskorain-Aldaz H.K.  
 Nazional B maila

### SASKIBALOA

Larunbata 11  
**Kirolegia, 15:30ean**  
 Ostadar SKT-Gerdau Azkoitia ISB  
 Kadete neskek, partehartzea.  
 Udaberri saria

### PILOTA

Ostirala 10  
**Ibaeta, Donostia, 19:30ean**  
 Antigua-Intza  
 4'erdí, nagusiak  
 Udaberri Saria

Larunbata 11  
**Michelingo pilotalekua, 16:00etan**  
 Intza-Allerru I  
 Errendimendua, Infantilak  
 Udaberri Saria  
**Michelingo pilotalekua, 16:00etan**  
 Intza-Gazteleku  
 4'erdí, nagusiak  
 Udaberri Saria,

Igandea 12

**Astigarraga 17:00etan**  
 Astigarraga-Lasarte-Oria  
 Herriarteko txapelketa joaneko partida

### GIMNASTIKA

Larunbata 11  
**Majori kiroldegia, Ordizia, 10:15ean**  
 LOKEko infantil taldea Eskolarteko  
 Gipuzkoako txapelketako finalean  
 izango da lehian.

### ATLETISMOA

Larunbata 11  
**Irun, 15:30tan**  
 Herriko hainbat atletek Erlaitz  
 Aiako Harriak Km bertikala proban  
 parte hartuko dute.  
**Anoetako Miniestadioa, 16:30ean**  
 LOKEko atleta gazteek eta herritarrek Kadete, Jubencil, Junior eta Beterano mailako Gipuzkoako txapelketa azken jardunaldia dute.

Igandea 12

**Irun, 09:00etan**  
 Herriko hainbat atleta III Erlaitz  
 Aiako Harriak mendi lasterketan  
 izango dira.

Eibar, 10:00etan

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu  
 ikastetxeetako infantil eta alebin  
 mailako gazteek eskolarteko  
 Gipuzkoako txapelketa dute

### TRIATLOIA

Larunbata 11  
**Deba, 11:00etan**  
 Herriko hainbat atletek Euskadiko  
 Sprint txapelketa den V. Deba-Itziar  
 Xtreme Triatloian parte hartuko dute.

### ERRUGBIA

Larunbata 11  
**Michelin, 17:15ean**  
 Beltzak Ostadar Gure Etxea-  
 Arratikoko Euskal Liga, kadeteak

Igandea 12

**Michelin, 09:00etan**  
 Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako  
 gazteek entrenamendua dute.

### TXIRRINDULARITZA

Larunbata 11  
**Urretxu, 08:30ean**  
 Herriko hainbat txirrindulariek

I. Urola Garaia BTT Maratoia proban parte hartuko dute.

**Zumaia, 10:15ean**  
 Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteak Zumaia Saria proban izango dira.

**Hernani, 16:00etan**  
 Bazpi Txirrindularitza eskolako infantilek taldekako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa dute.

**Oiñti, 16:30etan**  
 Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko jubencil XLV Arantzazu igoera proban parte hartuko dute.

Igandea 12

**Biyak Bat elkarte, 08:00etan**  
 Ostadar SKT-ko zikloturistik  
 Madubiara egingo dute iteera.  
**Mutriku, 10:00etan**  
 Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko jubencil XXXI. Atxukale Saria proban izango dira.

### BOLA-JOKOA

Igandea 12  
**Segura, 10:00etan eta 16:30ean**  
 Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak  
 Gipuzkoa kopako azken saioa  
 jokatu du.



— Agenda —

Larunbata 11, 19:00etan, Okendo plazan



25 urte kantuan

Alboka Abesbatzak 25.urte betetzen ditu aurten. Hainbat ekitaldi antolatu ditu urteurren berezia ospatzeko eta lehengo ekitaldia kontzertu bat izango da. Honetan herriko abesbatzak gain, Erketz EDT, Erketzeko lagunak, Zero Sette akordeoi orkestra, Xumela korua, Andoaingo Olagain txistulari taldeak eta Amaia Agirre bertsolariak parte hartuko dute. Aurretik, kale-jira izango da.

Mundumob

**OKENDO PLAZA**  
Larunbata 11, 11:00etatik aurrera  
Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak Mundumob egitasmoaren barruko flashmob-a grabatuko du.

Batukada

**LASARTE-ORIA ERDIGUNEA**  
Larunbata 18, egun osoa  
Euskal Herriko Igo batukada Topaketa izango da. 12:30etatik aurrera Taupada Samba, Zo!Zongo, Beriba Samba eskola eta Dinbi Banda batukadek haien erritmoa erakutsiko dute Lasarte-Oriako auzoetan barrena. Ekitaldi nagusia 18:00etan izango da Okendo plazan.

Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
Asteartea 7-Ostirala 31  
Estudio del Pintor ikasleen margolanak ikusgai izango dira.

Lasarte-Oria

Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Igandea 12, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "La vida de Pi" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilari 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 12, 19:30ean**

Helduen zinea atalean, "La vida de Pi" filma Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilari 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

**Osteguna 16, 21:30ean**

Ostegun zinea atalean, "Django desencadenado" filma Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilari 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Musika Topaketen barruan, Fabordon hiru kotoak kontzertua eskainiko du.



**SIGLO 20**

**Larunbata 11, 23:30ean**

Asier Meataka! Productions Dj-en Freestyle saioa entzuteko aukera izango da. Kultur kale zirkloa ekintza.

Musika

**AMA BRIGITARREN KOMENTUA**

**Ostirala 10, 19:30ean**

Danak Kide elkarteak antolatzen dituen



**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Asteazkena 8-Ostirala 17**

Lasarte-Oria Auzo elkarteak margo eta marrazki ikasleen lanak ikusgai izango dira, 18:00etatik 21:00etara.

Andoain

Antzerkia

**BASTERO KULTURGUNEA**

**Larunbata 17, 20:30ean**

Kukuka-k "Sahara, isiltsunaren ahotsak" antzezlan eskainiko du. Sarrera 5 euro.

— Herritarren txokoa —

Mus txapelketako afaria Lasartearra elkarteak

Lasartearra elkarteak antolatzen duen XXXVI. Mus txapelketako afaria ekainaren 1ean, larunbata, izango da. Ohikoa den legez, elkarte kide eta lagunek parte hartu ahaliko dute afari honetan.

Afari gozoa dastatu nahi duten herritarrek maiatzaren 28ra arte, egun hau barne, dute Lasartearra elkarte egoitzan, Erribera kalea 10 atzea, izena emateko.

Musika eskolako aurrematricula Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolan aurrematricula egiteko garaia da.

Musika eskolak eskaintza zabala du, haurrentzako txokoak, hizkuntza musikala, armoria, abesbatza, instrumentu ugari eta helduentzako taldea.

Eta aurten gainera txistua edo esku soina instrumentu bezala aukeratzeko duten herritarrek %20ko beherapena izango dute prezioan.

Aurrematricula Manuel Lekuonan egingo da 09:00etatik 13:00etara eta azken eguna maiatzaren 17a izango da. Kultura sailak gogora arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematricula egitea plaza izateko.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordu-lari, bost betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarte lokallean banatzen dira barazki eta frutak, garaien garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uzta-rolasarteoria@hotmail.com helbidean.

— Hemeroteka —

Duela 1061 ale

Alboka abesbatzak bihar bere 25. urteurrena ospatzen duenez, 1995ko apirilaren amaieran argitaratutako artikulu bat ekarri nahi izan dugu orrialde hauetara, Lasarte-Oriako abesbatzarekin elkartrukea egin zuten Poloniako "Gorce" abesbatzari buruzkoa, hain zuzen ere.

Poloniako abesbatza 1995eko apirilaren 19tik 24ra egon zen Lasarte-Orian eta kontzertua eskaini zuten Manuel Lekuona kultur-etxean.

Haien egungo aldian aprobetxatuz, TXINTXARRI aldizkariak lehendakari eta zuzendariaren, Anna Zajac eta Jan Szosten hitz egiteko aukera izan zuten.

Artikulu "Gorce" abesbatzaren historia eta hainbat datu aurki daitezke, azpimarragarriena "Gorce" abesbatzak Poloniako Kultur Ministeritzak sarritan saritua izan zela, herriko kulturari emandako bultzadagatik eta Poloniako musikariaren barruan zuten mailarengatik.

Izan ere, taldeak gehien lantzen duen musika Podhale edo haien herrialdeko kantu folklorikoak direla azaltzen da artikuluaren.

Era berean, Anna Zajacek eta Jan Szosten-ek haien herrian musika-afizio handia dagoela azaltzen dute, "txiki-txikitatik hezitzen dituzte kantagintzan".

Eta Anna Zajacek Podhale-ak eta Euskal Herriko musikak antza zuela zioen, "pareko elementu asko aurki genitzake bietan. Biak indar handikoak dira. Ez da ahaztu behar zuek bezala gu ere mendikoak garaela".



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

## Zero Zabor filosofia sustatu nahian

Bihar 11:00etan Okendo plazan grabatuko da Mundumob-a

**Aurreko astean aurkeztu zen Lasarte-Oria Zero Zabor taldea, Asteartean Iñaki Petxarroman herritarrek "Su haietatik ke hauek" liburua aurkeztu zuen Manuel Lekuonan hitzaldi batekin eta bihar 11:00etan Okendon Mundumob egitasmoaren grabaketa egingo da.**

Lasarte-Oria Zero Zabor taldea sortu berri da eta euren aurkezpenean azaldu bezala, helburua Lasarte-Orian ere hondakinak murriztea, berrerabiltzea, gaika biltzea, birziklatzea edo konpostatzea posible dela erakutsi eta honen alde lan egitea da. Bide honetan kokatzen dira aste honetan antolatutako ekintzak.

Batetik Iñaki Petxarroman herritarrek bere liburua aurkeztu zuen eta bestetik, bihar egingo den Mundumob egitasmoaren grabaketa. Dantza ikasteko bi entsegu egin dira bata asteartean eta bestea asteazkenean eta antolatzaileek

adierazi moduan, grabaketa plazan egingo da bihar 11:00etan.

### Hondakinaren plangintza

Iñaki Petxarromanen "Su haietatik, ke hauek. Errausketatik Zero Zaborrera" liburua duela hamar urte plazaratu zen hondakinaren Gipuzkoako plangintza eta urte hauetako ibilbidearen kronika du ardatz bere iritziarekin batera.

Manuel Lekuonan eskaintako hitzaldian liburuan jasotakoaz mintzatu zen eta adi-adi jarraitu zituzten bere hitzak bertaratutako herritarrek, hauen artean Pablo Barrio alkatea.



Astelehenean eta asteazkenean egin dira larunbaterako dantza ikasteko entseguak trinketeen.

### Mundumob

"Gipuzkoa zeharkatuko duen ekimena da. Herritarrek printzipio nagusi baten inguruan biltzea da helburua: Guztiok daukagu mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea, eta ondorioz, guztiok daukagu mundua hurrengo belaunaldiei jaso dugun aukera berdinekin uzteko bete beharra" diote Gipuzkoa Zero Zaborretik.

Ibilbide horretan Lasarte-Oria ere izango da. Okendon koreografia berezia dantzatuko da eta mundu bola ibiliko dute eskuz esku parte hartzaileek, "ekimenaren irudia".



Iñaki Petxarromanen hitzaldia adi jarraitu zuten hainbat herritarrek.

**MUNDUMOB**  
Eman hartu nahi duzun mundua

**DONOSTIA Ekainak 8**

**ZERO ZABOR**

**MAIATZA 11**

**MUNDUMOB**  
Azken entsegu eta grabaketa  
11:00etan Okendo Plazan

**Maiatzak 11  
LASARTE-ORIA  
11:00etan  
Okendo Plazan**

**Beti dago lehen aldi bat edozertarako...**

Ezberdin jatera ausartzeko.  
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;  
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez.  
Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea.  
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

**10€**

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

eroski.es

**EROSKI online**  
zurekin

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.